


Joseba Apaolaza udaletxeko Ondare eta Ogasun zinegotzia hil da

■ Atzo goizeko bostak aldera ondoeza egin eta handik berehalaxe hil zen ■ Gaur omenaldia egingo zaio.



Joseba Apaolaza udaletxeko bere bulegoan.

JOSEBA Apaolaza Zigarán Batasunako zinegotzia atzo goizaldera hil zen, kolpera. Bostak aldera jeiki omen zen Joseba, ondoezik. Anbulantzia medikalizatua iritsi eta reanimatzen saiatu ziren, baina, handik gutxira hil zen.

ONDARE ETA OGASUN BURUA

Apaolaza 1999ko urrian izendatu zuten Hernaniko Udaleko zinegotzi, Jabier Zabaleta Baldok kargua utzi eta gero. Orduan, Apaolaza egin zen udaletxeko Patrimonio eta Haziendako kargu. Horretaz gainera, zinegotzi zendu berria Kirol Patronatuko lehendakariordea ere bazen.

Ia bi urteko udal gestioan, Apaolazaren sailak proposatu-

tako Zerga Ordenantza berriak onartu dira; berak gestionatu zuen aurtengo udal aurrekontua eta orain, besteak beste, Katastroaren gaiarekin ari zen lanean. Uztailan bertan aurkeztekoa zuen plenoan.

Bestalde, Joseba Apaolaza herriko kirol talde eta elkarteetan ere sartuta zebilen. Santa Barbarako lehendakari izana da 1979-80 bitartean; geroztik ere zuzendarditzan askotan egona da eta 25 urtetik gora zeramatzien bazkide. Aurten San Joanetan omendutako txaranga ere aterea zen.

Errugbia zen Josebaren zaletasunetako bat. Errugbi jokalaria izan zen; gero, HCRko direktiboa orain dela gutxi arte. Partidu askotan agertzen zen Landareko zelaira.

JUBILATU ETXEA

Bihar egingo da Suanceserako zozketa

■ Bidaia hilaren 21ean egingo dute.



Jubilatu etxeko zozketa.

JUBILATUAK Cantabriako Suances herrira bidaia antolatuko dute uztailaren 21erako. Zozketa astelehenean izango da Jubilatuetxean bertan eta betiko orduan. Joan nahi dutenak bertara azaldu.

EGUN PASA

Autobusa goizeko 08:00-etan irtengo da Atsegindegitik, eta buelta ilunabar aldera egingo dute egun pasa ederra eginda. □

WATERPOLOA

Gaur bueltatuko dira Hernanikoak Portugaldik

WATERPOLO taldeko Onintza Esnal eta Yoli Pastor jokalariek eta Ibon Mendoza entrenatzailea Portugalen dira Euskadiko selekzioarekin. Herenegun, atzo eta gaur jokatu dituzte partiduak beste herrialdeetako selekzioen kontra. Gaur bukatuko da torneoa. □

Gorputza, udaletxeko aretoan

JOSEBA Apaolaza zinegotziaren gorputza udaletxean jarri zuten atzo 14:30ak aldera, gauean ikurrina zuela. Hil kapera arratsaldeko 21:30ak arte egon zen zabalik senide, lagun eta herritarrek zinegotziari azken agurra emateko. Gaur goizean, oster, 09:30etan zabalduko da hilkapera eta bertan egongo da, 11.30etan hilerirako bidea hartu arte.

Udaletxean goizetik egon zen atzo mugimendu handia. Batasunako zinegotziak bilduta egon ziren, Mertxe Etxeberria alkatea buru zutela, eta EAJ-EAko zinegotzi batzuk ere etorri ziren udaletxera. Ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek azaldu dute beren dolumina.

OMENALDIA

Joseba Apaolaza udaletxean eta hilerrian egindako omenaldiek agurtuko dute. 11:30-etan udalak omenduko du, txistulari eta dantzariekin. 12:00etan, berriz, Batasunak hilerri kanpoan egingo dio omenaldia: bertsoak, txalaparta eta Mertxe Etxeberria alkatearen hitzak izango dira.



Joseba Apaolazaren hil kapera udaletxeko aretoan.

ARALAR TABERNA

ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

MARI FERRER

ARRANDEGIA

Nagusia 36 943 55 04 89 Orkolaga 17 943 55 27 41

HERNANI

IRUBIDE JATETXEA

Epele auzoa 7
HERNANI

☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 406	TD	1.900.000 pza
Peugeot 405 GRI	1.9 Aire egokitua	570.000 pza
Peugeot 206	Diesela	berria
Renault Clio - 5p.	Diesela	775.000 pza
Citroen AX- 5 ate	Diesela	475.000 pza
Ford Escort - 5 ate	16 balbula - gorria	550.000 pza
Renault Express	Diesela	650.000 pza
Renault Express	Diesela	450.000 pza
Suzuki "Todo terreno"	1.2	290.000 pza

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

